

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken data	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"><li>Irailean erregistratutako langabeen kopurua 20.927 pertsonara jaitsi da. BAIren arabera, langabezia-tasa % 6,36ra jaitsi da.</li><li>Afiliatuak % 2,2 igo dira eta orain 197.194 pertsona dira. % 2,6 kontratu gehiago erregistratu dira, eta horietatik ia % 30 dira finkoak.</li><li>Irailean saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek % 1,4ko gorakada izan dute urtetik urtera, lan-egutegiko termino homogeneoetan.</li><li>Bilboko turismo-jarduerak gora egiten jarraitzen du. Hotelek eta turismo-apartamentuek 130.421 sarrera eta 262.219 gaualdi erregistratu dituzte guztira, urte arteko % 13,7ko eta % 9,6ko igoerekin, hurrenez hurren.</li><li>2025eko hirugarren hiruhilekoan 201 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira eta 72 desegin, hau da, % 0,5 gehiago eta aurreko urteko aldi berean baino -% 5,3 gutxiago, hurrenez hurren.</li><li>Bilboko aireportuak irailean 676.912 bidaiari erregistratu ditu, 2024ko irailean baino % 2,1 gehiago. Bilboko portuak 2,8 milioi tona eta 37.808 bidaiari kudeatu ditu azken hilabetean.</li></ul>	<b>Lan-merkatua</b>			
	<b>Afiliatutako biztanleak</b> (kop.)	197.194	2,2*	ira.
	<b>Erregistratutako langabeak</b> (kop.)	20.927	-1,2*	ira.
	<b>Langabezia-tasa</b> (BAI)	6,36	-0,39p.p.*	III- 2025
	<b>Erregistratutako kontratuak</b>	14.124	2,6	ira.
	<b>Merkataritza</b>			
	<b>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea</b> (2021. urtea = 100eko oinarria)	101,5	1,4	ira.
	<b>Turismoa (hotelak eta apartamentuak)</b>			
	<b>Bidaiarien sarrera</b> (kop.)	130.421	13,7	ira.
	<b>Ostatu-gauak</b> (kop.)	262.219	9,6	ira.
	<b>Batez besteko egonaldia</b> (egunetan)	2,01	-3,8	ira.
	<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
	<b>Etxebizitzien alokairuaren prezioa</b> (€/hilabete)	934,7	0,1*	I-2025
	<b>Sortutako merkataritza-sozietateak</b>	201	0,5	III-2025
	<b>Desegindako merkataritza-sozietateak</b>	72	-5,3	III-2025
	<b>Garraioa</b>			
	<b>Bidaiarien aireko garraioa</b> (kop.)	676.912	2,1	ira.
	<b>Salgaien itsas-garraioa</b> (milioi tona)	2,8	-8,9	ira.
	<b>Hiri- eta metropoli-garraioa</b> (milioi bidaiari)	88,4	10,9	Urt.-abu.

## DATU BAT

**% 6,36**

Langabezia-tasa BAI

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Irailean 254 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hil artean  $-1,2\%$  gutxiago, eta 20.927 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean,  $-1,2\%$  bi kasuetan. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 143 emakume eta 111 gizon zeuden langabe.

16 eta 24 urte artekoen artean  $5,2\%$  igo da kopurua eta 91 langabe gehiago daude. Eta 25 eta 44 urte bitarteko segmentuan jaitsi da gehien ehunekotan,  $-4,3\%$  ( $-328$ ). 45 urte eta gehiagoko taldeak 17 langabe gutxiago ditu ( $-0,1\%$ ).

Sektoreka, zerbitzuetan 273 langabe gutxiago daude ( $-1,8\%$ ), eraikuntzan 30 gutxiago ( $-2,4\%$ ) eta lehen sektorean 8 gutxiago ( $-2,2\%$ ). Industrian erregistratutako langabezia eta lehen enpleguaren bila dabilizanak baino ez dira areagotu (3 eta 54 langabetu gehiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa  $-1,1\%$  murriztu da aurreko hilaren aldean. Zaragozak izan du beherakadarik handiena:  $-2,2\%$ . Madril da neurritsuena,  $-0,8\%$ , eta Sevillak abuztuko datua errepikatu du.

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabezia  $-1,2\%$  jaitsi da. Langabeziak behera egin du Donostian ( $-2,9\%$ ), Gasteizen ( $-1,1\%$ ) eta Iruñean ( $-0,2\%$ ).

Langabeziak behera egin du EAEn ( $-2,0\%$ ) eta hiru lurraldeetan: Gipuzkoan  $-3,4\%$ , Bizkaian  $-1,8\%$  eta Araban  $-0,5\%$ .

### Afiliatuak

Bilboko enpresetan 197.194 afiliatu zeuden irailaren amaieran, hau da,  $2,2\%$ ko igoera izan zen eta 4.272 enplegu gehitu ziren abuztuarekin alderatuta.

Araubide Orokorrak 4.156 enplegu irabazi ditu aurreko hilaren aldean; Langile Autonomoen Erregimen Bereziak ere 66 afiliazio gehiago izan ditu. Etxekoan 17 afiliatu gehiago daude, eta erregimen berezietan (Nekazaritza eta Itsasoa) 33.

Sektoreen arabera, zerbitzuek 4.152 afiliatu gehiago izan dituzte ( $2,4\%$ ), eraikuntzak 49 ( $0,5\%$ ), lehen sektoreak 38 gehiago ( $14,7\%$ ) eta Industriak 33 afiliatu gehiago ( $0,4\%$ ).

#### Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	<b>20.927 pertsona</b>
	$1,2\%$ ▼
Emakumeak	$1,2\%$ ▼
Gizonak	$1,2\%$ ▼

#### Benchmarkina

Hilabete artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	$1,2\%$ ▼
<b>G-5</b>	$1,1\%$ ▼
<b>G-3</b>	$1,2\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Iraila</b>	<b>197.194 pertsona</b>
	$2,2\%$ ▲
Araubide orokorra	$2,5\%$ ▲
Autonomoak	$0,3\%$ ▲
Etxeko Sistema Berezia	$0,3\%$ ▲
Beste batzuk	$4,5\%$ ▲

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmenak dira hezkuntzako, ostalaritzako, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetako eta aisialdi-eta kultura-jardueretako adarretan izandako igoerak (4.171, 446, 348 eta 258, hurrenez hurren). Jaitsierarik nabarmenenak eman dira gizarte zerbitzuetako, osasuneko, informazio eta komunikazioko eta merkataritza eta konponketako adarretan (-584, -277, -174 eta -157 afiliatu gutxiago, hurrenez hurren).

**Urte artean**, irailean enpleguak % 2,1eko gorakada izan du, hau da, 3.976 afiliatu gehiago egon dira.

Araubide Orokorra % 2,5 hazi da, eta bereziak -Nekazaritza eta Itsasoa-, berriz, % 1,2. Behera egin dute Etxekoak (-% 2,5) eta Autonomoenak (-% 0,2).

Sektoreka, Zerbitzuetan 3.602 afiliatu gehiago daude (% 2,1), Industrian 235 gehiago (% 2,6), Eraikuntzan 122 gehiago (% 1,3) eta Lehen sektorean 17 gehiago (% 6,1).

Zerbitzuetan bereziki nabarmentzekoak dira adar hauetan izandako igoera absolutuak: Hezkuntza, Garraioa eta biltegiatzea, Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak eta Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (725, 698, 435 eta 411 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,5eko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Joera positiboa izan da taldeko hiriburu guztietan. Zaragozan izan da hazkunderik nabarmenena (% 2,6) eta Sevillan baxuena (% 0,9).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,9 igo da. Donostian % 1,0 eta Gasteizen % 2,3 hazi dira. Iruñean -% 0,8 egin du behera.

EAEen, oro har, afiliatuak % 1,5 areagotu dira hilabete artean. Enplegua handitu da lurralde guztietan: Arabak % 2,8 egin du gora, Bizkaiak % 1,5 eta Gipuzkoak % 1,0.

#### Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	<b>197.194 pertsona</b>
	% 2,2 ▲
Zerbitzuak	% 2,4 ▲
Eraikuntza	% 0,5 ▲
Industria	% 0,4 ▲
Lehen sektorea	% 14,7 ▲

#### Benchmarkina

Hilabete artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 2,2 ▲
<b>G-5</b>	% 1,5 ▲
<b>G-3</b>	% 0,9 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Biztanleria Aktiboaren Inkesta

BAIk okupazioaren eta langabeziaren jaitsiera handiarekin itxi du 2025eko hirugarren hiruhilekoa, eta langabezia hori gizonen artean bakarrik jaitsi da.

Datuetan: -15.000 aktibo, -13.300 landun eta -1.700 langabe

Biztanleria ez-aktiboa 1.200 pertsonatan igo da.

Hirugarren hiruhilekoan landunen kopuruak behera egin du (-% 7,9). Beherakada hori bi sexuetan gertatzen da, baina nabarmenagoa da emakumeen artean (8.200 emakume landun gutxiago eta 5.000 gizon landun gutxiago).

Enplegu-tasa ehuneko 1,83 puntu jaitsi da, eta % 54,69an geratu da.

Sektoreka, Industriak 2.700 enplegu irabazi ditu 2025eko hirugarren hiruhilekoan; Zerbitzuek 10.700 eta Eraikuntzak 5.200.

Langabeek behera egin dute (1.700 pertsona gutxiago); hau da, aurreko hiruhilekoan 12,9 mila ziren, eta urteko hirugarren hiruhilekoan, berriz, 11,2. Gizonen artean bakarrik jaitsi da, 4.400 gizon gutxiago. Emakume langabeak 2.800 gehiago dira hiruhileko honetan.

Langabezia-tasak behera egin du 0.39 puntu portzentaletan eta, beraz, % 6,36koa da. Gizonentzat % 3,32an geratzen da, baina emakumeentzat % 9,32raino igozen da.

### Biztanle landunei egindako inkesta BAI

- III. hiruhilekoa

Δ Hiruhileko artekoa

Langabezia-tasa	% 6,36	
	0,39 pp	▼
Emakumeak	% 9,32	
	3,47pp	▲
Gizonak	% 3,32	
	4,32 pp	▼
Biztanleria aktiboa	% 7,9	▼
Biztanle landunak	% 7,5	▼
Biztanleria langabetua	% 13,2	▼

## Erregistratutako kontratuak

Irailan 14.124 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 2,6 eta 352 kontratu gehiago. Urtetik urtera areagotu egin dira gizonen eta emakumeen egindako kontratuak: 19 eta 333 gehiago, hurrenez hurren.

Gazteenei egindako kontratuak igo dira, % 6,0 gehiago, hau da, 220 kontratu gehiago, eta 45 urte baino gehiagokoen artean, % 5,6 (194 gehiago) 25-44 urte arteko taldean behera egin dute kontratuak -% 0,9 (62 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 46,4 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (6.559 kontratu), % 27,7 berriz, gazteenei (3.907) eta gainerako % 25,9a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.658).

Sektoreka, kontratuak igo egin dira Zerbitzuetan (% 2,6 eta 332 kontratu gehiago), Eraikuntzan (% 5,0 eta 18 gehiago) eta Lehen sektorean (% 55,6 eta 10 gehiago). Industrian baino ez dute behera egin (-% 1,2 eta 8 gutxiago). Zerbitzuetan, igoera absolutu esanguratsuenak Ostalaritzan (389 gehiago), Etxeko langileak enplegatzen dituzten etxebizitzetan (241 gehiago), Beste zerbitzuetan (102 gehiago) eta Merkataritzan

### Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Iraila	14.124 pertsona	
	% 2,6	▲
Emakumeak	% 4,3	▲
Gizonak	% 0,3	▲
Lehen sektorea	% 55,6	▲
Industria	% 1,2	▼
Eraikuntza	% 5,0	▲
Zerbitzuak	% 2,6	▲
Kontratatutako pertsonak	% 3,9	▲

(83 gehiago) izan dira. Jarduera artistikoak, Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak eta Hezkuntza dira urte arteko galera handienak dituzten adarrak (-238, -223 eta -192, hurrenez hurren).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 70,4 izan dira irailean. Mugagabeek % 14,8 egin dute gora urtetik urtera. 11.203 pertsona kontratatu dira, % 3,9 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,26 kontratu.

## MERKATARITZA

### Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, irailean, % 1,4 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, % 1,6 igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 2,1 egin dute gora 2024ko irailarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek % 0,3ko gorakada izan dute.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 3,2ko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentetan ere ez da aldaketarik egon Araban (% 0,0), eta Gipuzkoan gora egin dute (% 1,1). EAEn, orokorrean, % 1,1 igo dira.

#### Saltoki handiak (Bizkaia)

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	<b>101,5</b>
<b>Salmenta-indizea</b>	<b>% 1,4 ▲</b>
- Elikadura	% 2,1 ▲
- Gainerako produktuak	% 0,3 ▲
<b>Landunak</b>	<b>% 3,2 ▲</b>

## EKONOMIA ETA ENPRESAK

### Merkataritza-sozietateak

2025eko hirugarren hiruhilekoan Bilbon 201 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek % 0,5eko gorakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (sozietate bat gehiago, datu absolutuetan).

Sektoreka, Zerbitzuetan 169 sozietate sortu dira, 2024ko hirugarren hiruhilekoan bezala; Eraikuntzan 28, Industrian 3 eta Lehen Sektorean 1 (5 gehiago, 5 gutxiago eta 1 gehiago, hurrenez hurren).

Hirugarren hiruhilekoan 72 sozietate desegin dira, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino 4 gutxiago. Horietatik % 73,6 zerbitzuen sektorekoak dira, % 12,5 eraikuntzakoak eta beste % 12,5 industriakoak.

#### Merkataritza-sozietateak

Urte artekoa  $\Delta$

##### III. hiruhilekoa

<b>Sortutakoak</b>	<b>201</b>
	<b>% 0,5 ▲</b>
<b>Deseginda</b>	<b>72</b>
	<b>% 5,3 ▼</b>

Aurten, lehenengo hiru hilabeteetan, guztira 692 sozietate eratu dira, eta 305 desegin dira, % 6,1 eta % 7,4 gehiago, hurrenez hurren, iazko aldi horrekin alderatuta.

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 230.290 ostatu-gau erregistratu dira irailean, hau da, % 6,9ko hazkundera egon da urtetik urtera (14.953 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak ere gora egin du,% 9,9. Estatuko bidaiarien presentziak gora egin du urte artean (% 12,1), eta irailean hirira egindako bisitarien % 36,3 izan dira. Gainerako % 63,7 atzerritarrak dira, aurreko urteko hilabete berean Bilbon ostatu hartu zutenak baino % 8,8 gehiago.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,2), gero Kataluniakoak (% 14,4), EAEkoak (% 12,0), Andaluziakoak (% 10,1) eta Valentziakoak (% 6,7). Atzerriko bidaiariei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: AEB (% 13,2), Erresuma Batua (% 12,4), Alemania (% 12,1), Herbehereak (% 6,8), Frantzia (% 6,7) eta Italia (% 5,4).

Batez besteko egonaldia 2,00 egunekoa izan da, duela urtebete baino zertxobait txikiagoa (2,06).

Hotel-establezimenduek emandako errentagarritasun-datuak kontuan hartuta, tarifak eta gela eskuragarriko batez besteko sarrerak gora egin dute, eta 149,2 eta 129,2 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Hirugarren hiruhilekoan, uztailetik irailera, 746.391 gau-egonaldi eta 368.625 sarrera erregistratu dira, hau da, % 5,8ko igoera gau-egonaldietan eta % 7,1ekoa sarreretan, 2024aren aldean. Bidaiarien batez besteko egonaldia 2,06 gaudikoa izan da.

Apartamentu turistikoaren establezimenduek 15.467 sarrera erregistratu dituzte guztira irailean, hau da, % 52,5 gehiago eta 31.929 gaudik gehiago, eta 2024ko irailean baino % 33,2 gehiago.

Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, irailean 130.421 sarrera eta 262.219 gaudik izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 13,7 eta % 9,6, kasu bakoitzean).

### Hotel-gauak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	230.290 ostatu-gau	
		% 6,9 $\blacktriangle$
Hiru izar eta gehiagoko hotelak		% 5,4 $\blacktriangle$
Gainerako hotelak eta ostatuak		% 11,8 $\blacktriangle$

### Bidaiarien sarrerak hoteletan

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	114.954 sarrera	
		% 9,9 $\blacktriangle$
Nazionalak		% 12,1 $\blacktriangle$
Atzerritarrak		% 8,8 $\blacktriangle$

### Batez besteko egonaldia hoteletan

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	2,00 ostatu-gau/bidaiari	
		% 2,91 $\blacktriangledown$

### Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Urte artekoa  $\Delta$

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)		% 10,5 $\blacktriangle$
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)		% 12,1 $\blacktriangle$

### Apartamentu turistikoak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>		
<b>Ostatu-gauak</b>	31.929 ostatu-gau	
		% 33,2 $\blacktriangle$
<b>Bidaiarien sarrerak</b>	15.467 sarrera	
		% 52,5 $\blacktriangle$

Apartamentu turistikoak: "gutxieneguz logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena.

(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

**Benchmarking.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da,  $-2,3\%$  jaitsi da urte batetik bestera. Langabeziak behera egin du hilabete honetan Donostian ( $-5,3\%$ ), Gasteizen mantendu da eta Iruñean igo dira ( $-4,5\%$ ).

Urtetik urtera hobera egin dute EAEn, Araban eta Bizkaian ( $2,3\%$ ,  $2,1\%$  eta  $5,0\%$ , hurrenez hurren). Gipuzkoan baino ez da murriztu ( $-0,4\%$ ).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek  $0,3\%$ ko gorakada izan dute. Valentzian izan ezik ( $-4,1\%$ ), ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Zaragozan egon da gorakadarik handiena ( $2,6\%$ ).

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	$6,9\%$	$\blacktriangle$
<b>G-5</b>	$0,3\%$	$\blacktriangle$
<b>G-3</b>	$2,3\%$	$\blacktriangledown$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

### Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 676.912 bidaiari izan ditu irailean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino  $2,1\%$  eta 13.796 bidaiari gehiago. Emaizta horiekin, gainera, iraileko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zuenetik.

Merkataritza-eragiketetan, hegaldi nazionaletan bidaiari kopuruak behera egin du: 7.346 bidaiari gutxiago urte batetik bestera ( $-2,0\%$ ). Eta  $7,0\%$  hazi dira nazioartekoetan, 20.925 bidaiari gehiagorekin.

Hilean operatutako hegaldiak mantendu egiten dira, eta iritsieren eta irteeren artean 5.093 izan dira. Eta horietan garraiatutako salgaiak ere hazi egin dira ( $42,7\%$ ).

Urtariletik irailera 5.342.187 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino  $3,2\%$  gehiago, hau da, 164.103 bidaiari gehiago.

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera  $2,5\%$ eko igoera kontabilizatu da. Zaragozan izan ezik ( $-2,1\%$ ), taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Bartzelona da hazkunderik nabarmenena ( $4,3\%$ ), eta Madril eta Valentzian txikiena ( $1,2\%$ ).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira,  $-2,2\%$  gutxitu da. Donostian behera egin du ( $-7,1\%$ ). Langabeziak gora egin du Iruñean ( $7,1\%$ ) eta Gasteizen ( $0,4\%$ ).

### Aireko garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Iraila</b>	676.912 bidaiari	
	$2,1\%$	$\blacktriangle$
Nazionalak	$2,0\%$	$\blacktriangledown$
Nazioartekoak	$7,0\%$	$\blacktriangle$
<b>Salgaiak (kg)</b>	$42,7\%$	$\blacktriangle$
<b>Hegaldiak</b>	$0,0\%$	$=$

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	$2,1\%$	$\blacktriangle$
<b>G-5</b>	$2,5\%$	$\blacktriangle$
<b>G-3</b>	$2,2\%$	$\blacktriangledown$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan zuen irailean, hau da, -% 8,9 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan irailean kudeatutako salgaien % 58,5 izan da, eta urte arteko -% 9,5eko beherakada izan du. Solteko gaien trafikoa -% 6,7 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra -% 7,4 jaitsi da. Abuztuan 16 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik irailera 21 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino -% 10,1 gutxiago.

### Itsas garraioa Iraila

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Portuko trafikoa</b>	2,81 milioi tona % 8,9 ▼
<b>Bidaariak garraiatzea</b>	56.509 bidaia % 22,7 ▲
<b>Itsas bidaariak</b>	37.808 itsas bidaia % 40,7 ▲

## ADIERAZLEEN TAULA


	Azken dataua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.927	-1,2*	2025eko iraila
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	197.194	2,2*	2025eko iraila
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	14.124	2,6	2025eko iraila
Biztanleria aktiboa (milakotan)	175,8	-7,9*	2025eko III. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	164,6	-7,5*	2025eko III. HH
Langabeak (milakotan)	11,2	-13,2*	2025eko III. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	6,36	-0,39 p.p.*	2025eko III. HH
<b>Merkataritza</b>			
Konsumoko prezioen indizea (KPI)***	119,4	-0,2*	2025eko iraila
Afiliatuak**	20.124	-0,8*	2025eko iraila
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	113,1	3,5	2025eko II. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	101,5	1,4	2025eko iraila
<b>Turismoa</b>			
Bidaerien sarrerak hoteletan	114.954	9,9	2025eko iraila
Hotel-gauak	230.290	6,9	2025eko iraila
Batez besteko egonaldia hotelean (ostatu-gauak/bidaiariak)	2,00	-2,91	2025eko iraila
Hoteletako okupazio-maila (%)	72,6	2,00 p.p.	2025eko iraila
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	129,2	12,1	2025eko iraila
Bidaerien sarrerak apartamentuetan	15.467	52,5	2025eko iraila
Ostatu-gauak apartamentuetan	31.929	33,2	2025eko iraila
Batez besteko egonaldia apartamentuetan (ostatu-gauak/bidaiariak)			
<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
Bizkaiko BPGd	107,3	0,5*	2025eko II. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	73,1	-3,0	2025eko abuztua
Merkataritza-sozietate berriak	692	6,1	2025eko urtarriletik irailera arte
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	127,1	1,5	2025eko II. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	4.753,5	9,6*	2025eko II. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	3.439,0	-1,2*	2025eko II. HH
Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete)	934,7	0,1*	2025eko I. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaerien aire bidezko garraioa	676.912	2,1	2025eko iraila
Hegaldiak	5.093	0,0	2025eko iraila
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,8	-8,9	2025eko iraila

\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. \*\* Bilboko enpresetan. \*\*\* Bizkaiairi dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, Axesorren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


**Erregistratutako langabezia**




**Afiliatuak**




**Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)**



**Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan**



**Hotel-gauak**



**Aireportuko bidaiariak**

